

Oion

Amonengandik bilobengana



Arabako herriak



1967ko mahats-bilketa. Manuel González Pastor-ek Oiongo Udalari utzitako argazkia

OION



Oion

Arabako Errioxan, Logroñotik legoa batera, eta Moreda, Labraza, Iekora herribilduetatik hur, Nafarroako Viana ere aldamenean, Oion ardo-soto edo upategi handietako herria da.

Dagoen lekuan eta historian dagoelako, beti Logroñotik eta Nafarroatik gertu, ardanerri hau inguruko lur-sail idorretan berebiziko leku ona izan da, Nafarroa zaharreko erresumaren barruan zegoen Sonsierra, “Axpe” alegia, deritzon eskualdean.

Oiondarrak -langile saiatuak, nonbait- ezinbestekoak izan dira herri hau iberiar penintsulakoen artean upategirik handienak dagozen herria izaiteko. Oionen dena aldatuz doa, hala ere, orotan bezala, eta noizbait, antzinan, Nafarroako Erreterriko herririka bat izan zena, 500 urte baino gehiagoz nafar, iturri zahar, hoxpil eta oparo baten inguruan eta bideburu batean kokatua, gaur den egunean Errioxa arabarreko herririk jendetsuena da.

Ibaia eta ureztatzeko erretenak ditu laguntzaile. Ibaiak, joanean-joanean izenez aldatzen badoa ere, hemen Ibai Handia deritzo, mahastirako, olibondoetarako, laboreetarako... ur ona, lur emankorra eta aro mediterraniar egokia ekarten ditu. Arbendolak ere ugari bazterrotan.

50. hamarraldian Trujal Cooperativo de San Vicente izeneko olio-errota eraiki zen, 2019ra arte iraun zuena. Egun, olibondoak bizirik eta olio bikaina emaiten dutenak dira hemengoak, esate



Manuel González Pastor-ek Oiongo Udalari utzitakoa



A person wearing a dark blue shirt is standing behind a black metal railing. The railing has vertical bars with decorative finials. In the background is a light-colored stone wall made of large rectangular blocks. In the bottom right corner, there are some pink flowers.

Vitori Palaciosekin

Oion

Amonarengandik bilobarengana

Lehen eta orain

Victoria Palacios' Oion bezalakoxea da, bere herria bezala; bere gotorlekuak aprobetxatzen jakinda hazi da berarekin. Vitori etorki luze bateko lehena jaio zen, batez ere ahal zen hobekien lan egiten eta aurrera ateratzen irakatsi zion sendi batean, Oionek ere mahastien eta merkataritzaren munduan lehentasunezko tokia egin nahi zuen garai batean.

Tikitatik, aitarekin batera ikasi zuen landan lan egiten, eta mahats-bilketa senideen artean egiten zuten, elkarri lagunduz ohi legez. “Nik labanaz eta aitoz mahats-okoak edo mordoak moztzen nituen. Ondo baino hobeto nekien mahatsa zapaltzen, barruko zukua idokitearren”, gogoratzen du.

Eta lan egiteko adina bazuen, otorduetan ardo-zurrutada bat edateko ere bai, etxean oso ohikoa baitzen, 10 urteko neskatila zelaririk. Porroia izaiten zen, eta otorduetan baino ez.





◀ *Vitoriren ezkon-senideak, Sarabiatarrak denak. Alvaro Sarabiak Oiongo Udalarari utzitako argazkia*

▼ *Sendiaren etxea, berriztatu aurrekoa. Sendiaren bilduma.*



Ardoa nahi beste eta urgozoarekin

Familiaren etxea enparantzan bertan zegoen, ‘Gaseosas Palacios’ izen handiko urgozoaren ekoitzi-lekua zen, hiru estaikoa. Botilak kristalezkoak ziren eta herriaren armarrria edo mazmarroa zedukaten bereizgarri. Vitoriren nebak banatzen zituen, honetatik “Manolo el de las gaseosas” esaten zioten, hots, “urgozoetako Manolo”.

Aitak etxean zedukan makinaz egiten zioten. Hantxe bertan ardoa gordetzen zen eta gela batean olio-upelak zeduzkaten.



Beste herri bat

Herria asko aldatu da Vitoriren 92 urte hauetan. Lehen, Oiongo sarrera dotorea zen, eta makalek errepidearen bi aldeak itzaltzen zituzten. Orduan oinez egiten zituzten Logroñotik honainoko bost kilometroak. Errepide nagusitik jaisten ziren eta ateetan geratzen ziren elkarrekin itzultzeko, neskak eta mutilak. Arabarekiko leialtasuna dute, baina beti Logroño hurbil eta bertora joan izan dira.

Vitori txitxi-burduntzi egitean. Alvaro Sarabiak Oiongo Udalari utzitako argazkia. ▲

Oiongo sarrera edo sargua, duela 100 urte doi (1943) Gasteizko Udal Artxiboa. E. Guinea ►





Gaur egun lantegiek egiten diote harrera bisitariari. 60ko hamarraldian industrializatzen hasi zen eta kanpoko jendea etorten hasi zen, “kanpotarrak” deitzen die Vitorik. “Benetako Oion, zuena, hilda eta lurperatuta dago”, berretsi dio Alvaro Sarabia bilobak. Orain inork ez ditu giltzak atean uzten, bera gazteago zenean egiten zuten bezala.

Aitonak iragartzen zuen. Hilerri berria egin behar zenean, ez zuen zalantzarik izan agintariei aholkatzeko hiribilduan eraiki ez zezaten, urrunago egiteko, herria beherantz haziko zela eta. Inork ez zion jaramonik egin eta gaur den egunean Oionek bi hilerri daduka, beste bat egin behar izan dute Moredarantz alderatuta.







“

*Biziera gehiegi
aldatu da”*

Aitzinormetan armarriak

Vitori ez zen aitaren etxetik asko urrundu herriko mutil batekin, 26 urteko zela, ezkondu zenean. Plaza Nagusian bertan, etxe bat zegoen, lau bizitoki, bi ganbara eta ukuiluak zeduzkana, aitzineko horman armarri edo mazmarro ederra eta guzti, hots, izen handiko eraikin zahar horietariko bat.

Plazara balkoia zuten bizietxe haietako batean jarri ziren, eta ukuiluetan denda bat ireki zuten. Berak soroan lan egiteari utzi zion, salmahaiaren atzean era guztietako elikagaiak eta garbiketarako produktuak saltzen aritzeko; bitartean, Tomas senarrak, lurra lantzen eta Salcedo aulki fabrian jarduten zuen. Oionen hazkunde industrialeko urte haietan jarri zen lehenengoetako bat izan zen aulki-lantegi hura.

Oso ordutegi zehatzik bage, eguerdian ixten bazuen ere auzokideak ezorduetan ere behar zutenaren bila joaiten zitzaizkion, eta Vitori beti lanean, eta hala ere bizi-toki haretan goxo zegoen. Handik dantza egin ohi zen lekura tarte luzerik ez eta musika biziki maite zuen, jotak eta pasodobleak, hots, “urraspi-koak”, batez ere, “baina ez orain sartu duten txistua”.

*Sergio Ruiz de Sabaria Oiongo Udalari
utzitako argazkia*



“

*Filmeez belarri
egiten”*

Ordutik bizitza hagitz aldatu dela dio, gaur egun “askakeria, eta lotsabageak, lehen emakumeenganako begirune gehiago zegoen bitartean”.

Apurka-apurka, beste bizitokiak hutsik geratu ahala, Vitorik Tomasekin erosi izan zituen eta egungo egunean eraikin osoa beraiena da. Lehengo askotariko denda gaur egun ardanetxe bihurtu da, semeak kudeatzen duena.

*Sergio Ruiz de Sarabiak Oiongo
Udalari utzitako argazkia* ▲

*Álvaro Oiongo elizako organo
bikainean* ►



Disney-gatik organo-jotzaile

Alvaro Sarabia 26 urteko gaztea harrigarria da bere herriaren historia, kultura eta antzearekin duen konpromisoagatik. Santa María de la Redondan organo jotzaile, Logroñoko Konkatedrala da hori, Oionen eta inguruko beste herri askotan, beti liturgiaren zerbitzura, meza nagusi eta hiletetan.



Disneyrekin eta Karibeko Itsaslapurrak filmaren bigarren emanaldiarekin hasi zen dena, artean haurra zela. Han ohartu zen holandar alderraiaren ganbaran hodi-organo bat zegoela, eta lotura handia zuela haraindikoarekin, arimekin eta naturaz gaindikoarekin. Une horretatik aurrera, elizara joaiten zen bakoitzean korura igaiten zen, eta han zegoen organo ikaragarria, ikaragarri handia.

Bi urte geroago erretoreak elizako giltza utzi zion eta ordudunik entsegu eta autoikaskuntzarako ordu eta orduak izan dira; “ni ez naiz ikasgelara joan organo joten ikastera”.

Gaur egun Oionen, inguruko herrietako jai ospetsuetan eta Logroñon egitaldi orotarako organolaria da, bere herriko abesbatza zuzentzeaz gain. Hala ere, berea antze plastikoak dira.





▲ *Katxi jardunean, 1989an. Gasteizko Udal Artxiboa. I. Saenz de Urturi.*

◀ *Felix Fernandezek Oiongo Udalari utzitako argazki*

“
Bere
antzinatasunagatik
begirunea
zor zaio”


Katxi

Eta antzerako esku onak izaitez gain, interese berezia du historiaren xehetasunak ezagutzeko, inguruko herrietako jaietan laguntzen duten pertsonaiak ezagutzeko eta irudimenezko mundu horri guztiorri zentzua emateko.

“Katxia arlekina da, eta antzinatasunagatik begirunea zor zaio, ez dut atsegin, beraz, bufoi edo memel esatea”, dio errime. Katxia txarangak gidatuz ateratzen zen jendea iratzartera, baina garrantzitsuenak San Bizente eta San Anastasio jaietan, urtarilaren 21ean eta 22an, udaletxearen eta

elizaren oinetan iraulkatzen dela, ihalozka ekiten zaiola auzokideei bere errespetua eskaintzeko.

Herritarrei begirunea adierazteko bufoi jantzen den herriko pertsonarik aberatsena da. XVI. mendetik agertzen da eta askotariko janzkerez estali izan da. asko eta asko jantzi ditu. Herrialdeko egoera politikoa nola eta bera era batez edo bestez jantzi izan da, errepublika garaian, adibidez, margo errepublikarrez jantzen zen, orainaldian berde-gorritz jantzen da.





San Vicente olio-errotan lanean. Oiongo Udalak utzitako argazkiak

Olio-errota

Olibondoak Oionen aspaldidanik datozen zerak dira, ez dira atzo goizeko zuhaitzak hemen, mahatsondoak ez diren bezalaxe, eta olibak daduzkanak mahatsak ere badaduzka, eta alderantziz. Abenduan biltzen da, eta oliba, garbitu ondorean, olio-eihera edo errotara eramaiten da, Trujal esaten dioten tokira hain zuzen. Oionen olioa egiteko ardura izan duen kooperatiba San Vicente izan da, duela urte gutxi itxi zutena, mende erdi baino gehiagoz ibili eta gero.

“El Trujaleko lanen amaiera jaialdi batez ospatzen zen: El Trujal arrantxoa zeritzona, Arabako Mendialdeko lusagarrez, Bermeoko bakailaoz, Oiongo baratze-tako piperrez, eta olio berrizko txorro-tada eskuzabal batez egindako otordua zen”.

“OYÓN El pueblo que surgió junto a la fuente milenaria”

Manuel González Pastor



Mahats-bilketa. Oiongo Udalak utzitako argazkia. Manuel González Pastor

- | | |
|---------------------------------------|----------------------------|
| 1 Upategi-toki handia | 4 Iturri Zaharra |
| 2 Ardoaren etiketak eta askoz gehiago | 5 Gorrebustoko olio-eihera |
| 3 Oion oroitarriz betea | |



Oion EZIN BESTE KOAK

- 6 Katxi
- 7 Barraskilo-jana
- 8 Labraza
- 9 Ardo eta arrainaren bidea, GR38
- 10 Txirrinduz

Manuel González Pastor eta Fernando Martínez-Bujanda jaunei eskerrik asko





1

Upategi-toki handia handia

Oroz gain, Oion upategi handietako herria da: Faustino, Valdemar, El Coto, Marqués de Vitoria, Viña Bujanda, Ondalan, Zuazo Gastón eta Cosecheros y Criadores izeneko upategiak hementxe dagoz. Herrian upategiak -8- taberna-jatetxeak baino gehiago dira. Datu harri-garria, Oionek 3.500 bizilagun agin darduzkala jakinda.

Gaur egun, Oion iberiar penintsula osoko ardandegi garrantzitsuenetako bat da. Sinestezina dirudi: bertako upategien fakturazioa Arabako Errioxako fakturazio guztiaren ia erdia da. El Coto eta Faustino, adibidez, urtean 20na milioi botila inguru ateratzen dituzte merkatura.

Upategi ikonikoen erakusketan erakusten den indarra da. Faustino -160 urteko ibilbidea eta Errioxako mahasti-jaberi handiena- Norman Fosterri eskatu zaio bere instalazioak berritzeko eta arkitektura-komplexu handi baten proiektua egiteko.

*Oiongo Udalak utzitako argazkia.
Cristina León Rubio*



2

Ardoaren etiketak eta askoz gehiago

Oionek ardoarekin duen harremana historikoa da, baina gorabeherak izan ditu urteetan zehar. Mahastiak eta ardoaren merkataritzak, olioarekin batera, zentzua, aberastasuna eta bizia eman zioten herriari XVI. mendetik XIX. mendera arte. Gero, filoxera etorri zen, eta mahatsondoen suntu-sipen larri-larriak ekarri zituzten beste gorabehera batzuk. Bizirauteko, nekazariak aspaldiko ezagun bat landatu zuten, labore, eta arbendolondoak ere bai.



Oiongo Udalari Miguel Caverro Carazok utzitako argazkia

70eko eta 80ko hamarraldiak ardoaren berpizkundearenak eta upategi handien instalazioarenak izan ziren. Oiongo nekaritzaren eraldaketa handia 1999an izan zen, ureztaketa berria inauguratu zenean, eta mahatsaren ekoizpena % 500 baino gehiago handitu zen. Gaur egun, mahatsondoek, baina baita olibondoek eta arben-dolondoek ere, Oiongo paisaia apaintzen dute.

Ardoaren esentziak Oionen goi-goiko enpresa batzuen sortzea eragin du.

Argraf antze grafikoaren enpresa munduko liderra da ardo-botilentzako etiketak diseinatzeko eta egiten. Baina ardoaren sektore osagarriak (teknologia enologikoa, upelgintza edo ontziak) ez ezik, Logroñotik hurbil egoiteak ere (5 kilometro hor-hor) Oion kokatu du. Bere gerriko industrialak Arabako bigarren garrantzitsuena da, Gasteizkoaren ondorean.



Oiongo elizako ataldea

3

Oion oroitarritz betea

Urrundik ikusten den Jasokundeko Andre Mariaren eliza itzelak, bere dorre barroko ederrarekin eta bi jauregiarekin, blasoi eta kondairekin, gaur egun ahantzirik dirudien Oionen iragan ospetsua erakusten du.

Monumentu garrantzitsuenak Portuko Markesaren eta Buretako Kondeen jau-regiak dira, baita eliza ere. Haren atearak arreta erakarten du bere fintasun eta dotoretasunagatik, XV-XVI-ko estilo gotiko-erre-

nazentista isabeldarrekoa da, eta barrualdean, musika-sorpresa bat daduka.

Elizako organoa Araban dagoen modernoena da, eta bertako organo-jotzailea, Álvaro Sanabria, gazteena. Autodidakta da, freskotasuna ematen die eliz-egitaldiei, eta, batzuetan, Arabako Errioxako beste herri batzuetan eta Logroñoko Santa María de la Redonda konkatedralean joiteko deitzen diote.



*Agureak Oiongo Iturri Zaharrean, 1964.
Photo-Araba*

4 Iturri Zaharra

Oiongo zaharrek oraindik gogoan dute umetan Iturri Zaharrera joatea, beren upelttoa edo litro eta erdiko txongila hartuta, eta beren etxeetarako urez betetzea. Urte luzez iturria Oiongo lagunei behar zuten ura emaiten ziena izan zen.

Milaka urteko iturri honek, zeinbait ikerketa etimologikoren arauera, herriari izena ematen dio, Oion, diotenez, Ullone-tik (nabar erromantzea) baitator.

“Ikuztokiaren ondoan, Ekorako errepidean, iturria dago. Iturri horretatik ur ugari eta hoxpila eta osasungarria ateratzen zen urte osoan Sonsierra lehorrean, eta handik iragaiten ziren Burgos, Leon eta Santiagora zihoazen Frantziako hegoaldeko erromesak eta merkatariak”.

“Oyón. El pueblo que surgió junto a la fuente milenaria”/“Oion. Mila urteko iturriaren ondoan sortu zen herria”. Manuel González Pastor



Oiongo Udalari utzitako argazkia. Miguel Caverro Carazo

5

Gorrebustoko olio-errota

Oiongo soroak olibondoz beteta dagoz, nahiz eta kooperatibaren dolareak zein-bait urtetan itxita egon, eta ondorioz olibak inguruko herrietara eramaiten dira, Moredara edo Lantziegora, hemen kapital pribatuko olio-errota bakarra geratzen delako.

XX. mendeko 40ko hamarraldian hainbat errota zegozen, jabego pribatukoak urte batzuk geroago San Vicente Trujal Kooperatiba sortu zen. Garai haretan 30

mila olibondo agin zegozen, gaur egun gutiago eta zuhaitz tiki baina emanorragoak landatzen dira, hiru urtean behin olibak emaiten dituztenak.

Eguno egunean, kilometro gutira, Gorrebusto kontzeju tikian, olio-errota bat dago oraindik, prentsa zahar batekin eta olio egiteko prozesua ezagutzeko bisita daitezkeen beste tresna batzuekin. Gorrebustoko Olio-Eiherako Museo Zaharra da.

Oiongo pertsonaiarik ezagunena eta maitagarriena da, nahiz eta Erdi Aroko errituetatik etor litekeen bere jatorriaz ezer guti jakin. Katxiren itzulipurdia Oiongo jaietan egiten da, urtarrilaren 21ean eta 22an.

“Katxiren tradizioak herriko kaleak zeharkatzen ditu musika-bandaren soinuekin dantza eginez lurlean iraulka gure banderaren azpian, martxoan edo Judasen erre-

ketaren antzeko zentzu garbitzailea du, pertsonaiaren izena cachi diavoli (deabrua kanpora) esaera italiarretik datorrela baitiote”.

Fernando Martínez-Bujanda

Oionen Erraldoiak eta Buruhandiak ere herritarren maitagarriak dira, eta bi pertsonaia nagusi: Vasco eta Navarrico.



Gasteizko Udala Artxiboa. I. Sáenz de Urturi



Erraldoiak eta Buruhandiak 2001ean.
I. Sáenz de Urturi

Mila lagunentzako barraskilo -jana

Barraskilo-jate handia - ia historikoa -, 1981etik San Bizente plazan egiten dena. Mahasti-aihenez eta pinu-egur pixka batez egindako su baten gainean, 150 kg barraskilo ipini behar dira 1,60 zm-ko diametroa eta 36 zm-ko sakonera duen kazola erraldoi batean.

Bi metroko arraunaz pazientziaz irabiatuz, San Prudentzioren goiz osoan zehar prestatzen dira, apirilaren 28an. Gisatuak 1.000 anoa inguru ditu, eta edalontzi bana

txakolin, sagardo edo urteko ardoarekin banatzen da.

Herriko hiru koadrilek, jai-taldeek alegia -Mocos, Lagunak eta Egin- barraskiloekin nahasteko burutapena izan zuten duela 30 urte baino gehiago, eta Oiongo “Jai handi” bihurtu dute. Lehen koadrilak landetara ateratzen ziren barraskiloak jaso eta garbitzera, baina gaur egun Udalak haztegitan erosten ditu, garbitu eta.

Gogoz, maitasunez eta pazientziaz egiten da Oiongo barraskilo-jana. Tomasok eta “Biki”-k, sukaldari eskuonetako bik esan digutenez, errefritoak tipularekin, piperrekin, baratxuriekin eta tomatearekin egiten da. 100 kg txiztor, urdaiazpiko eta hirugihar edo xingar gehitzen zaizkie, eta kontuz ibili behar da barraskiloak ez lehortzeko eta saltsa lapikoari ez itsasteko. Gozatzer!





Labraza. Oiongo Udalak utzitako argazkia

8 Labraza

Labrazak 100 bizilagun daduzka eta 3 kale. 116 metro bider 80 metro neurtzen ditu, soilik, alderik zabalenean! Euskadiko hiri-bildu harresiturik tikiena da, eta Hiri Harresituen Munduko Saria jaso du.

Muino baten gainean, Labrazak XVI. eta XVII. mendeetako bizietxeak dadutza, herriar batzuek zaharberritu dituztenak; Sortzez Garbiaren Atea; gaztelu-gotorlekuaren aurriak; eta eliza bat goian, dorre barroko batekin eta sei arkuko arkupe batekin. Harresiaren erdian dagoen Atari Nagusiko arkutik dagoen paisaia zoragarria da. Kanpoaldean, harresietatik kanpo, iturri bixi bat dago, Mairuaren Iturria, eta, urruna-

go, balio handiko pinu gorritz osatutako baso bat, denek Dueñako Pinudia izenez ezagutzen dutena.

Labrazaren tamaina tikiar harro, bada upategi ttiki, familiar eta oso berezi bat ere: Hontzak antzinako mahastietako mahatsak erabiltzen ditu -100 urteko mahatsondoak ere bai- eta nekazaritza ekologikoa eta biodinamikoa, herriko ardoak esaten dioten motako sei egiteko. Hontzan zaldiak dira protagonista euren lan egiteko moduan. Upategi berezi honek mahastia eta Erdi Aroko herria bisitatze aukera eskaintzen du, eta ardoa dastatzeko txitxi-burduntzia eta guzti.



9

Ardo eta arrainaren bidea deritzonako lehen zatia - GR 38

Oiondik Guardiara oinez (17,5 km), Bermeo, Ondarroa eta Lekeitioko portuetara eramaiten zituzten ardoaz, ozpinez edo gariz betetako gurdiekin mandazainek urteetan egin zuten bezala. Mandazain haiek arrain freskoa edo gazitua ekarten zuten itzulaldian.

Ardo eta arrainaren ibilbide ezagunaren lehen bide-zati hau -bide osoak 166 km ditu- Euskadiko hego-hegoaldeak hasita

Kantauri itsasoraino doa. Oiongo Jasokundeko Andre Mariaren elizatik abiatzen da, eta Assa eta El Campillar zeharkatzen ditu, Guardian amaitu arte.

Paisaia zoragarria da, mahastietako, Kantabria-Toloño mendilerroko eta Ebro ibaiko egarak, aurkintzak, bazterrak ikusgai, begien gozagarri.

Antzinako gurdia. Oiongo Udalak utzitako argazkia. Felix Fernandez. ▲

Oiongo Udalak utzitako argazkia. Alberto Apellaniz Gallego ►

Labraza-Moreda-Gorrebusto zeharkatu eta Labrazara itzultzen den 23 km inguruko ibilbide biribil oso polita dago. Gora-behera handirik bage, errepide atsegitatik eta mahasti, olibadi, arbendolondo eta labore sail batzuetatik iragaiten dena, pirripittaz ibilteko berebizikoa.



Herriak

Oion
Labraza
Gorrebusto

Beste datu batzuk

53 bizilagun (1.523)
3.582 bizilagun (2.025)
538 urtez Nafarroako
Erresumako herria izan zen
8 upategi
7 jatetxe-taberna
1 landetxe

Oion

◀ ● 61 Km ● ▶ Gasteizera

◀ ● 128 Km ● ▶ Bilbora

◀ ● 166 Km ● ▶ Donostiara

◀ ● 5,4 Km ● ▶ Iruñera

Luze-zabalera
45,08
km²



Arabako herriak

Amamengandik bilobengana

Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak,
ibilbideak eta gastronomia.

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziara dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Gehiago jakitearren gure web-gunean



arabakoherriak.com